

Itsas energia, apustu garestia

Eusko Jaurlaritzak itsasoaren indarra elektrizitate bihurtzeko planta eraikitzen ari da Mutriku

JAKES GOIKOETXEA
Mutriku

Eusko Jaurlaritzak itsasoaren energia elektrizitate bihurtzeko aukera ikertu eta garatu nahi du datozen urteetan. Duela hainbat urte haizearen energiarekin egin zen moduan. Itsasoaren energiari bi motatako etekina atera nahi dio: alde batetik, energetikoa, hau da, energia iturri berri gisa ustiatzea eta aprobetxatzea; bestetik, industrial, itsas energia ustiatzearen inguruan sektore berri bat sortuz eta garatuz.

Itsasoaren energia ustiatzea garestia da. Bai behintzat ur zutabe oszilatzaileen teknologiararen bidez (Oscillating Water System, OWS): olatuek aire ganbera batzuetako airea gorantz bultzatzen dute eta aire horrek turbinak mugiarazten ditu, bai goranzko bidean, bai beheranzkoan.

Eusko Jaurlaritzak teknologia hori baliatzen duen planta eraikitzen ari da Mutriku (Gipuzkoa): 16 turbina izango ditu, eta Eusko Jaurlaritzak 3,5 milioi euro inguru inbertituko ditu bertan; plantak urtean 600.000 kWh produzitzea espero dute, 600 pertsona inguruk

«Proiektu pilotu moduan hartu behar dugu, teknologia oso berria baita. Baina sekulako aukera da»

ANA AGIRRE
EUSKO JAURLARITZAKO INDUSTRIA SAILBURA

urtebetean etxean kontsumitzen duten energia elektrikoaren balio-kidea. Eusko Jaurlaritzak itsas energia baliatzeko bost MW instalatu eduki nahi ditu 2010. urterako. Epe horretan 15 milioi euro inbertituko ditu itsas energia baliatzeko azpiegiturretan, ikerketan eta garapenean.

2009AN MARTXAN. Ana Agirre Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak eta Nuria Lopez de Gereñu Garraio eta Herri Lan sailburuak obrak bisitatu zituzten atzo. Oraingoz, Mutrikuko proiektua baita. Turbinak jartzeko hormigoizko egitura egiten ari dira, Mutrikuko portuko dike berrian. Obra aurtengo azken hiruhilekoan amaitzea eta planta 2009ko erdialdean martxan jartzea espero dute.


Munduan badira OWS teknologia erabiltzen duten itsas energia plantak: Azore uharteetan eta Eskozian. Mutrikuko turbinak bat baino gehiagoko bakarra izango da.

«Proiektu pilotu moduan hartu behar dugu, teknologia oso berria baita», ohartarazi zuen Ana Agirrek. «Baina itsas energia sekulako aukera da eta proiektuaz harro nago». Mutriku jarriko dituzten 16 turbinak Tolosako (Gipuzkoa) Voith Hydro enpresak egingo ditu.

Itsas energia baliatzeko plantak jada eragozpenak eragin ditu Mutriku, lanean hasi aurretik: abenduan hainbat egunetan zarata handia atera zen bertako aire hordietatik. Ana Agirrek barkamena eta pazientzia eskatu zien atzo herriarrei: «Ahaleginak egiten ari gara eta egingo ditugu zarata murrizteko».

>> jgoikotxea@berria.info

MUTRIKUKO PORTUA ETA ITSAS ENERGIAKO PLANTA




Ezaugarriak

- **Kokapena:** Mutrikuko portuko dike berrian.
- **Inbertsioa:** 3,5 milioi euro.
- **Inbertsioa energia instalazioan:** 1,7 milioi euro.
- **Obraren amaiera:** 2008ko azken hiruhilekoan.
- **Planta martxan:** 2009ko erdialdean.
- **Potentzia instalatua:** 296 kW
- **Energia ekoizpena (aurreikuspena):** 600.000 kWh (600 pertsonaren urteko etxeko kontsumo elektrikoaren balio-kidea).

Bizkaia eta Gipuzkoa

- **2010erako aurreikuspena:** 5 MWe ko potentzia instalatua.
- **Inbertsioa:** 15 milioi euro azpiegiturretan, ikerketan eta garapenean.

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA, HOBETU LEIKE, SANTAKARRIA BIZRIK



«Portuan egiten ari diren triskantzari etiketa berdea jartzeko aukera da»

J. GOIKOETXEA
Deba

Mutriku Natur Taldea ez dago energia berriztagarriaren kontra; baina Mutrikuko portuaren antolaketa berriaren eta bertan egiten ari diren itsas energia aprobetxatzeko plantaren kontra dago. «Dikearen neurri erraldoia zuzitzeko modu oso aproposa da, portuan egiten ari diren triskantzari etiketa berdea jartzeko», dio Inigo Agirre Mutrikuko Ingurumen zinegotziak. Berdeak + Independentek plataformaren izenean aurkeztu zen hauteskundeetara. Mutriku Natur Taldeko kidea ere bada. «Interesgarria iruditzen zaigu ikertzea, baina esperimentuak ezin dira edozein tokitan egin, are gutxiago herri baten aurrean eta babestutako itsaslabar baten gainean».

Agirreraren iritziz, Mutriku itsas energia baliatzeko erabiliko duten teknologia ez dauka gutxieneko eraginkortasunik, eta haize errorenarekin alderatu du: «16 turbineta-

tik megawatt (MW) erdia lortuko dute; haize errota bakar batek, berriaz, 2,5 MW lortzen ditu eta bost MWera ere iritsiko da. Ikertzea ondo dago, baina herri batekin esperimentuak egitea onartezina da. Herri guztiaarena zen hondartza bat, itsas zabalaren ikuspegia... galduta dago, baina herri batekin esperimentuak egitea onartezina da. Hori ikusita, itsasoko energia aprobetxatzeko beste bide bat aipatu du: itsasoa, kostaldetik ez oso urrun ur azpian buiak jarri eta itsasoak buiei eragiten dien mugimendua energia bihurtzea. Santoñan (Kantabria, Espainia) badago buien bidez energia lortzeko proiektua.

Inigo Agirre Mutrikuko Ingurumen zinegotzia da, baina hereneko arratsaldean jakin zuen atzo goizean Ana Agirre Industria sailburuak eta Nuria Lopez de Gereñu Garraio eta Herri Lan sailburuak Mutrikuko itsas energia baliatzeko planta bisitatuko zutela.

SALAKETA EPAITEGIAN. Mutriku Natur Taldeak eta Lur Maiteak Eusko

Jaurlaritzaren kontrako salaketa jarrita daukate proiektuaren kontra. Beren esanetan, itsasoaren indarra energia bihurtzen duten turbinak jartzeko lanak, energia instalazioa, proiekturik egin gabe eskaini eta eman ziren. Obra egiten ari diren enpresetako ordezkariak duela urtebete deklaratu zuten. Auzia geldirik dagoela dio Agirrek.

Jaurlaritzak obrak kudeatzeko erabili duen prozedura «iluna» eta «legez kanpoko» da, Agirreraren iritziz. Portuaren Plan Berezian eta obrarako baimen eskaeretan itsas energia planta ez zegoela dio.

Duela hilabete itsas energia baliatzeko plantak Mutriku osoan entzun zitekeen zarata sortu zuten zenbait egunetan. Inigo Agirrek onartu du oraingoz arazoa konpondu dela. Plantak ez duela zaratarik sortuko agindu diete. «Baina ez gaude ziur, kontrako esperientziak daudelako Azore uharteetan eta Eskozian», dio. «Ez dakigu zergatuko den instalazioa martxan jartzen dutenean».



16 turbinak sartuko dituzten horma, Mutrikuko portuan. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS